



Mondragon  
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

Biblioteka zerbitzuko materialak erabiltzeko arautegia  
**Eskoriatzako campusa**

2023-2024 ikasturtea

## BIBLIOTEKAKO MATERIALA

Bibliotekako materialaren erabilera Mondragon Unibertsitateko komunitateko kideei dago mugatuta.

### 1.1. BALIABIDE MATERIALAK MAILEGATZEKO PROZEDURA

- Baliabide materialak dira: ordenagailu eramangarriak, bideokamerak, tripodeak, etab.
- Materiala erabiltzerakoan jarduera akademikoek eta ikerketa-lanek dute lehentasuna.
- Erabiltzaileak alde zuzenetik materiala erreserbatzeko aukera dauka [web aplikazio bidez](#). Erreserba egiten duenak lehentasuna du.
- Materialak maileguan hartzeko epea 24-48 ordukoa da, hortik gorako maileguetarako edota asteburuetan, jai-zubietan eta oporraldietan materiala mailegatzeko, [Bibliotekarekin harremanetan jarri](#) behar da.

### 1.2. DOKUMENTUAK MAILEGATZEKO PROZEDURA

- Bibliotekak aukera zabala dauka dokumentu ezberdinak mailegatzeko (liburu, DVD...), bai Fakultatekoak zein Mondragon Unibertsitateko beste Biblioteketakoak.
- Dokumentuen bilduma kontsultagarri dago [Bibliotekako bilatzailean](#).
- Fakultatean ez dagoen dokumentu bat behar izanez gero, dokumentu hori eskuratzeko [Bibliotekarekin harremanetan jarri](#) behar da.
- Erabiltzaile motaren arabera, materialen kopurua zein epea, [ezberdina da](#). Kasu kasu, aukera egon daiteke epe horiek luzatzeko.

Ikasleek ikasketak bukatu baino lehen eta tituluaren ziurtagiria jasotzeko, maileguan dituzten material edota dokumentuak bueltatu beharko dituzte.

### 1.3. MATXUREN, GALEREN EDO LAPURRETEN KUDEAKETA PROZEDURA

Maileguko materialaren erabileran matxura, galera edota lapurreta gertatuz gero, ondorengo urratsak emango dira:

- Ikasleak matxura, galera edo lapurretaren berri emango du.
- Materialaren kostu erreala kalkulatu da, amortizazioa aintzat hartuta, beheko taulan adierazitako eran:

Urteak	0	1	2	3	4	5-6	7-8	9-10	>10
Amortizazio kostea (BEZa barne)	%100	%75	%66	%50	%35	%25	%20	%15	%10

- Ikasleak ordainketari aurre egin beharko dio. Horretarako epe desberdinak egongo dira, betiere ordaindu beharrekoaren arabera:
  - 0 - 100 euroko aurrekontua bada: ikasleak hilabete bateko epea izango du ordaintzeko.
  - 100 eurotik gorako aurrekontua bada: ikasleak bi hilabete eta 3 hilabete arteko epea izango du matxura ordaintzeko.
- Epealdi horretan ordaintzen ez bada, unibertsitateko hainbat zerbitzu erabiltzeko aukera ukatuko zaio ikasleari (tartean materialak mailegatzeko aukera).
- Ordainketa transferentzia bidez egingo da eta ordainagiria Eskoriatzako Administrazioan edota Harreran aurkeztu beharko da.
- Ikasleak ordainketa egin ezean, kasua aztertuko da eta dagokion neurria hartuko da.